NEKAZARITZA, GANADUEN BILLALDIYA

ETA

EUSKAL-FÉSTAK OYARZUN-EN

Gipuzkoako Diputazio chit goituak bere kontura egiñak

Gipuzkoako Diputazio chit goituaren erabakiyari dagokiyola, alegiñ guztiyan Nekazari-lan eta Ganaduen onari laguntzeko, izango dira Oyarzunen, datorren Uztan, ondoren agertzen diran billaldi, festa eta eliz-egintzak:

UZTAREN 3-an .—*Arratsaldean.*— San Estebango elizan Salbea musika-talde osuarekiñ.

UZTAREN 4-an.— *Goizeko amarretan.*— Meza nagusia musika ederrarekiñ, sermoya euskaraz duela Jesus-en Lagundiko Aita gurgarri José Vinuesa gipuzkoar iztun arrigarriyak.

Konseju-bazkariya.

Arratsaldeko lau t'erdiyetan.— Esku-dantza.

Seyetan.—Euskal-kantak "Donostiar kantaritaldeak."

Arratsian— Su-berri ikusgarriyak, argitzak, musika ta danboliña Konseju-plazan.

UZTAREN 5-an.— *Goizeko zortziyetatik amabiyetara*— Billaldiyan sartu nai duten ganadu, egazti eta lur-frutuen artutzea.

Amaiketan.—Pillota partidua blekan eta eskuz Euskal-erriko jokalari onenetakuen artian.

Arratsaldeko lau t'erdiyetan.—Donostiyako Euskal-itz-jostaldiyen Batzarreak antolatu duen festa, ark idikitako indar-neurtzan saritual, izan diran moldaerak irakurri eta beren egilleai sariyak emanaz.

Ondoren izango dira *bersolariyak,* bi onenai *berrogeina pezeta* saritzat emanik.

Arratsian.—Argitzak, musika ta danboliña.

UZTAREN 6-an.— *Goizeko zortziyetatik amabiyetara.*— Billaldira-

ko artuak izan diran ganadu, egazti eta lur-frutuen banakatze eta esamiña.

Amaiketan .— Trinketeko pillota partidua jokalari famatuen artian.

Arratsaldeko lau t'erdiyetan.— Aur-aurreskua.— Ondoren izango da danboliñ-jotzallien billaldiya, Euskal-itz jostaldiyen Batzarreak idikitako indar-neurtzan saritua gertatzen dan zortzikoa jorik, eta onetaz gañera beraknai izaten duten beste euskal-soñu bat.

Arratsian.— Donostiyako elkargo "Euskaldun-fedea" deritzanak egingo du komediya edo iruditegitar festa eder bat.

Argitzak, musika ta danboliña.

UZTAREN 7-an.— *Goizeko amarretan.*— 20-tik 45 urtera bitarteko euskal-nekazari jator eta egoki jantzirik agertzen diran gizon ta emakume parien billaldiya, pare bakoitzak berekiñ ekarririk bei-gurdi eta nekazaritzarako biar diran lur-erremientak. Eskeintzen dira iru sari: lenbizikua 200, bigarrena 100 eta irugarrena 50 pezetakuak; eta izango dira Juezak: Oyarzungo Bilguma argidortar edo Konsejuko jaun bat, bestea Nekazari-lan eta Ganaduen onari laguntzeko Batzarrekua eta bestea Euskal-itz jostaldietakua.

Ondoren egingo da irrintzilari sayo bat.

Arratsaldeko labetan.— Emakumien lasterk'ibilltza sullak buruan dituztela; eta ondoren emango zaye 50 pezetako sari bat Tobera-jotzalleik onenai.

Bostetan.— Agertuko dira erriko plazan sariyak irabazitako ganadu, egazti eta lur-frutu guztiyak, jabeak zeiñ dituzten deyez azaldu eta berai emanaz ondoren ikusten diran sari oek:

1.ko Bat 300 pezetakua, bestea 250, bestea 200, bestea 100, eta bestea 75-kua, urte batetik iru t'erdira bitarteko zezen, zekor edo idiskorik onenai, sari oetako bat eman bear zayolarik bertako kasta edo arraza garbikua dan bati.

2.garren Bat 250 pezetakua, bestea 200, bestea 150, bestea 125 eta bestea 75-kua,urte batetik bostera bitarteko bei edo bigarik onenai, sari oetako bat eman bear zayolarik bertako kasta edo arraza garbikua dan bati.

3.garren Bat 150 pezetakua, bestea 100, bestea 80, eta bestea 50-kua, sei illabetetik urte batera bitarteko apoterik onenai.

4.garren Bat 100 pezetakua, bestea 80, bestea 70, bestea 50, eta bestea 25-kua, sei illabetetik urte batera bitarteko zerriemerik onenai.

5.garren Bat 150 pezetakua, bestea 100, eta bestea 75-kua, urte batetik bostera bitarteko zaldi edo zaldinorik onenai.

6.garren Bat 100 pezetakua, bestea 85, bestea 75, eta bestea 65-kua, urte batetik bostera bitarteko bior edo bior gazterik onenai.

7.garren Bat 80 pezetakua, bestea 70, eta bestea 60-kua, urte batetik bostera bitarteko aririk onenai.

8.garren Bat 70 pezetakua, bestea 60, eta bestea 50-kua, urte batetik bostera bitarteko ardirik onenai.

9.garren Bat 60 pezetakua, bestea 50, bestea 40, eta bestea 30-kua, sei illabetetik emezortzira bitarteko, bi ollo ta ollar bat arraza bakoitzeko onenai, bertako kasta eta kanpokuen artian.

10.garren Bat 60 pezetakua, bestea 50, pestea 40, eta bestea 30-kua, sei illabetetik emezortzira bitarteko antzarik onenai, sari bakoitza irabazteko bi eme ta ar bat biar dirala.

11.garren Bat 50 pezetakua, bestea 40, bestea 30, bestea 20, eta bestea 10-kua, sei illabetetik emezortzira bitarteko aterik onenai, sari bakoitza irabazteko bi eme ta ar bat biar dirala.

12.garren Bat 50 pezetakua, bestea 30, eta bestea 20-kua, urte batetik bostera bitarteko uso parerik onenai.

13.garren Bat 50 pezetakua, bestea 40, eta bestea 30-kua, erlaeche edo eultzik onenai.

14.garren Bat 80 pezetakua, bestea 70, eta bestea 60-kua, urte batetik bostera bitarteko astorik onenai.

15.garren Bat 70 pezetakua, bestea 60, eta bestea 50-kua, urte batetik bostera bitarteko astaemerik onenai.

16.garren Bat 70 pezetakua, bestea 60, bestea 50, eta bestea 40-kua, sagardorik onenai.

17.garren Bat 40 pezetakua, bestea 30, eta bestea 20- kua, bertako gazta ongiyena egiñai.

18.garren Bat 40 pezetakua, bestea 30, eta bestea 20-kua, bertan egiñtako guririk onenai.

19.garren Bat 50 pezetakua, eta bestea 30-kua, unchia edo konejurik onenai, sari bakoitza irabazteko bi eme ta ar bat biar dirala.

20.garren Bat 70 pezetakua, eta bestea 50-kua, nekazari lanetako erremienta obeto egiñai, ala beren gayaz, nola pisuz eta irautez.

21.garren Bat 1.000 pezetakua, sagar-arbola zer moduz landu eta ugaritu, eta sagardorik onenak nola egiñ eta iraun lezateken, ongiyena erakusten duen liburuari. Juezen iritzira gelditzen da sari au eman edo ukatzia.

22.garren Bat 1.000 pezetakua, lurra biar bezela landutzeko zimaur,

iñaurkiñ edo bestelako ongarririk onenak zer ta nolakuak diran obeto agertzen duen liburuari. Sari au, aurrekua bezela, emango da edo ez Juezen iritzira.

23.garren Bat 500 pezetakua, ganaduak bazkatutzeko belareta sustrayak nola landu eta ondu litezken, berez datozen soro edo nekazariyak egiñtakuetan, obeto erakusten duen liburuari. Juezen iritzira.

24garren Bat 250 pezetakua, erlaeche edo eultzak nola jarri, iduki eta geitu litezken obeto agertzen duen liburuari. Juezen iritzira.

25.garren Bat 500 pezetakua, gure mendiyetako arbolak, leku eta lur-mota bakoitzari dagokiyola, nola ta zenbateraño landu, iñautsi eta ugaritu litezken ta zertarako diran obeto erakusten duen liburuari. Juezen iritzira.

Arratsian. —Zezen-suzko, su-berri eta argitzak, musika ta danboliña, féstak bukatzen dirala ibar edo ballarako mendi tontorretan egingo diran su-gar aundiyakiñ, Oyarzun ibayeko ertzetan tartekatarteka argi kolorezkuak agerturik.

ADITZERAK.— 1.koa Gipuzkoako Diputazio chit goituak eta bere Bilgumak billaldi ontara ekarri litzaken ganadu, egazti eta lur-fru tuak, ez dira sarituak izango.

2.garrena Azalde ontako 21-garrenetik 25-garren zenbate edo lumeroraño esaten diran liburuak ez dira sarituak izango, baldiñ, Diputazio chit goituak 1895-eko Apirillaren 18-an baimendutako Oroimengarri eta azaldean agintzen dan bezela, berari entregatzen ezpazaizka illa betez aurretik.